

Tolosan hizkuntza ohiturak

Gurasoen erdiek gaztelaniara jotzen dute, haurrak aurrean ez daudenean

Galtzaundi euskara taldeak 'Gurasoen Hizkuntza Erabileraren Neurketa' egin du Tolosan; aurrera begira lanean jartzeko abiapuntuak zehaztuko ditu, orain, euskara taldeak.



**Itzea Urkizu Arsuaga /
Tolosaldeko Ataria**

@itzeaitzea

Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeen atarietara bertaratu, eta ikastetxe horietako gurasoen hizkuntza ohiturak jasotzea izan da Galtzaundi euskara taldearen azken egitekoetako bat. Guztira, 618 elkarrizketetako datuak jaso dituzte, eta hainbat ondorio atera: besteak beste, gurasoen erdiek baino gehiagok gaztelaniara jotzen dutela, haurrak elkarrizketa horretan ez daudenean.

"Txikitan hartzen diren hizkuntza ohiturek zeresan handia izaten dute etorkizuneari", Galtzaundiren arabera. Horri, "hizkuntza, batez ere, etxean jasotzen" dela gehituz gero, neska-mutilen gurasoen hizkuntzarako joerak berebiziko garrantzia hartzen dute, eta horrek bulztatu ditu neurketa egitera.

Aipatzekoa da kale inkestean eta kale neurketen arteko desberdintasuna: inkestetan, hiztunak badaki bere hizkuntza erabilera neurtzen ari direla, aldiz, neurketetan edo behaketetan hiztunak ezer ez jakitea irizpide bilakatzen da. Galtzaundiren ikerketaren kasuan, gai-

nera, testuingurua bera ere berezia izan da: Lehen Hezkuntzako haurren gurasoak izan dira behaketaren jomuga. Alegia, oro har ikastetxera joateko laguntza behar duten haurren gurasoak; hizkuntza ohiturak errotzen diren adin-tarteko haurren gurasoak.

2016ko iraila eta urria bitartean egin zuten datu bilketa, eta 787 guraso –edo arduradun– neurtu eta gero, lehen datua pozgarrizat jo daiteke euskararentzat: elkarrizketa guztien %67,39 euskaraz izan ziren. Gaztelaniatzko hizketaldien portzentajea %30,09koa izan zen eta, aldiz, beste hizkuntza zenbaitean izandako elkarrizketak %2,52 izan ziren.

Eskoletako atarietan, sartu-irtenetako ordutegietan, euskarak presentzia gehien duen momentua guraso eta haurren arteko elkarrizketena izaten da. Zehazki, seme-alabak eta gurasoak elkarrekin hitz egiten ari direnean, kasuen %74,90etan euskaraz hitz egiten dute; gaztelaniatz %22,09 aritzen dira, eta %3,01 beste hizkuntzatan.



Nahita edo konturatu gabe, baina guraso askok haurrak ondoan dituztenean euskaraz gehiago egiten dute urrutiratzen direnean baino.

Kontrara, neurtu eta behatutako elkarrizketetako protagonistak gurasoak bakarrik direnean –baina haurrak gertu daudenean–, datuak kezkatik gehiago du. Izan ere, Tolosako ikastetxeetako gurasoen %52,81ak gaztelaniatz hitz egiten du euren artean, eta %46,06 dira euskaraz aritzen direnak. Aldea ia 29 puntukoa izanda eta, gurasoen ohituren pisua frogatuta, jorratu beharreko adarra da gurasoen hizkuntzarako joerena.

Elkarrizketetako kideen nolakotasunari begiratu dioten bezala, elkarrizketan neurtu dituzten eremuak ere berebiziko garrantzia duela ohartarazi du Galtzaundik: eskola inguruetan euskararen erabilera nabarmen hazten da. Baietzapen hori egiteko 2015eko kale neurketak baliatu dituzte, eta helduek nahiz haurrek, gehiago hitz egiten dute euskara eskola inguruan, kalean baino: %5 gehiago helduek eta %8,4 haurrek.

Ohiturak, aldatzeko

Tradizioak sortu egiten diren bezala, aldatu ere egiten dira, hala nahi izanez




DANI BLANCO

gero, eta Galtzaundi euskara taldeak argitaraturiko ikerketa, aldaketarako deia izan daiteke zenbait gurasorentzat.

Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeek esku-artean dituzte, jada, beren ikastetxe atarietan jasotako datu zehatzak, eta oinarri horren gainean plangintza estrategiko bat garatuko du eskola bakoitzak, komenigarri iruditzen zaion moduan.

Euskara taldeari dagokionez, neurketak "aurreikusitako zenbait joera baieztatu" dizkiela azaldu dute, eta zirkulu euskaltzaleetatik kanpo eragitea da orain Galtzaundiren erronka nagusia, erabilean eragiteko. Momentuz, gurasoen hizkuntza ohituren inguruko diagnosis lau urtez behin egitea proposatu dute Tolosako Euskara Mahaian, egindako lanaren fruituak baloratu, eta jarraikortasuna lortzeko. Hori horrela, 2020-2021 ikasturtean egingo lukete hurrengo neurketa. ■

Artikulu hau Tolosaldeko Atariak argitaratu du eta CC-by-sa lizentziari esker ekarri dugu.



- Elkarrizketa euskaraz, haurrak tartean direnean
- Elkarrizketa euskaraz, haurrak tartean ez direnean
- Elkarrizketa gaztelaniaz, haurrak tartean direnean
- Elkarrizketa gaztelaniaz, haurrak tartean ez direnean
- Elkarrizketa beste hizkuntza batean, haurrak tartean direnean



TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Tomo bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa - Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

TIPI-TAPA BAGOAZ!



BIZITZA JASANGARRI BATERAKO ERALDAKETA

www.tipitapabagoaz.info

ogiaren egia



Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074